

Ezagutu Euskadin Elikagaien Segurtasunaren inguruan 2014an izandako kontu garrantzitsuenen berriak

ELIKAK, UPV/EHUko Gizarte eta Komunikazio Zientzien Ikerketa Talde Finkoaren laguntzarekin, "Elikagaien Segurtasuna Euskadiko 2014ko prentsan" hirugarren azterlana egin du, jakiteko euskal irakurleei zer-nolako informazioa iristen zaien Elikagaien Segurtasunari buruz, zein diren gai garrantzitsuenak eta zer arrisku/alerta gertatu diren 2014an.

Azterlan hori egiten den ondoz ondoko hirugarren urtea denez, Elikagaien Segurtasunari buruzko informazioaren bilakabidea eta joerak ere aztertu dira, 2012ko eta 2013ko azterlanen emaitzekin alderatuta.

Funtsezkoa da informazio horren eta bere tratamenduaren berri izatea, arrisku-kudeatzaileek berriro bideratu ahal izan dezaten Elikagaien Segurtasunaren arloko komunikazio-estrategia.

Aurreko urteetan bezala, aztergai izan dira Euskal Herrian argitaratzen diren bederatzi egunkarietako Elikagaien Segurtasunaren arloko 6 gai nagusiei buruz (Elikagaien Segurtasuna, Elikagaien arriskua/Elikadura, Nekazaritza/Abeltzaintza/Arrantza, Elikagaien industria, Osasuna/Nutrizioa/Alergiak) 2014an atera dituzten albiste guztiak.

Hona hemen azterlaneko 22 ondorio nagusietako batzuk:

- 2014an, guztira, **Elikagaien Segurtasunari buruzko 1.864 informazio** kaleratu dira (**batez beste, 5,2 albiste eguneko**); 2013an argitaratutako albisteen antzeko kopurua da.
- **Gai ohikoena: "Nekazaritza, abeltzaintza eta arrantza"** lehenik eta behin, **"Elikagaiak"** bigarrenik, **"Osasuna / Nutrizioa / Alergiak"** hirugarrenik, eta "Elikagaien industria" azkenik.
- **Areagotu egin da Elikagaien Segurtasunaren arloko gaien garrantzia:** argitaratutako testuen % 6,4 azalean agertu dira (aurreko urtean, horien erdiak agertu ziren), eta % 48,2 orrialdea irekitzeko testuak dira (eta orrialdeko leku nagusia hartzen dute).
- **Kazetaritza-espezializazio urria:**
- Argitaratutako testu guztien erdiak kazetarietako eta kolaboratzaileetako sinatu dituzte, baina soilik % 5 sinatu dituzte espezialistek, eta % 7 informazio-agentzietatik datoz. **Sinatu gabeko testu asko dago (% 35)**, kontuan hartuta informazio horiek kalitate apalagoko testuekin lotzen direla.
- Gainera, **profesional askok (362) parte hartzen dute kazetarietako sinatutako testuak idazten**, eta soilik % 9,7k esku hartu dute 6 albiste edo gehiago egiten.
- **Gehien erabilitako informazio-iturriak: pertsonak.** Testuak osatzen parte hartu duten iturrien % 71,5 organismoren bateko bozeramaile jardun duten pertsonak dira: % 39,3 **administraziokoak eta Elikagaien Segurtasuneko agentzietakoak** dira; % 25,58 gizartearen ordezkariak; % 18,1 zientzialariak eta adituak; eta % 16,7 elikakateko operadoreak.
- **Elikagaien arriskuei buruzko albiste gutxi 2014an:**
- Argitaratutako testu guztien % 9,5ek baino ez dute berriaz aipatzen arrisku hitza elikagaiei buruz hitz egitean; ez da ehuneko oso handia, baina bai esanguratsua. Izan ere, Kantauriko antxoan aurkitutako anisakisaren kasua izan ezik, **ia ez da elikagai-arriskurik gertatu**. Hala ere, aintzat hartu behar da balitekeela elikagaien alertak sortzea baina kazetarietako edo hedabideetako alertatzat ez jotzea.
- **Gomendio gehiago atera dira arriskuei buruzko berrietan** (% 70; joan den urtean, % 48), **baina apaldu egin da albiste horien ikuspegi positiboa** (% 22,6; joan den urtean, % 36,9) eta areagotu, berriz, albiste-mota horri ematen zaion ikuspegi negatiboa.

Txostena: Elikagaien Segurtasuna Euskadiko prentsa-hedabideetan - 2014

(https://www.elika.eus/datos/guias_documentos/Archivo_EU46/2014%20Elikagaien%20Segurtasuna%20PR1%20bj%20eus.pdf)

